

Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUS-KALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico del concejo de *Alegria* del municipio de *Alegria / Dulantzi*, en su forma euskérica académica actual es: *Dulantzi*. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *dulantziar*.

Que *Dulantzi* es claramente un topónimo euskérico, documentado en 1025, 1257, 1294 y 1332 como *Dullanzi*, *Dulanci*, *Dulance*, *Dullanci* y *Alegria de Dulanci*, como aparece, por ejemplo, en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. Dicho nombre todavía se mantenía vivo para designar una zona de dicho municipio en 1694. Que *Dulantzi*, fue usado en lengua vasca por el pueblo hasta épocas más recientes, como se observa en la toponimia menor donde entre otros se recoge dicho nombre, en el siglo XVIII, en el nombre: *Dulancisarri*. Posteriormente el nombre castellano *Alegria* terminaría por imponerse desapareciendo *Dulantzi* del uso oral, como se ve en la toponimia donde aparece *Alegria* y *Alegeria*.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, se ha de respetar en todo caso la grafía académica propia de cada lengua, salvo en el caso en que ambas formas sean sensiblemente diferentes, en el que ambas tendrán consideración oficial.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a diez de enero de dosmil.

V.º Bueno



H. Knörr



Mikel Gorrotxategi

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak, ondoko

### DIKTAMEN HAU EMATEN DU:

Elkargo Akademiko honek prestaturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 484. zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean *Orduña* deitua, euskal aldaera ofizialean **Urduña** dela. Halaber, herritarren izena *urduñar* da.

*Urduña* izena, *nn* eta *ni*-z idatzita, latinez ez baitzegoen *ñ* grafemarik, lehendabiziko idazkietan agertzen da, nahiz eta geroko agiritan *Orduña* aldaera (*Ordunia*, *Ordunna*, *Hordunna* erataria idatzita) nagusituko zen. Tamalez, gaur egun ditugun idazki gehienak XVI. mendeko kopiak izanik, sarritan Simancasen eginak, ez dira oso baliagarriak. Zernahi gisaz, izen jatorrak, *Urduñak*, bizirik dirau Orozko ibarreko euskaldunen artean, hurbilenekoak aipatzeagatik. Beste lekukoen artean Aita Gorostizaga frantziskotarrarena dugu, Oñatiko Bidaurreta komentuko kapelau ohiarena. Aipaturiko izen hori erabiltzen zuen, Aita Luis Villasante euskaltzainburu zenak bilduta.

Ez da hau euskaraz aitzineko izen baten bizi-iraute bakarra, eta modu berean aipatu ahal dugu *Otxandio*, XII. mendean horrela jasoa, *Ochandiano* izen ofiziala izango zuen hiribildua sortu baino lehen. *Otxandio* aldaera izan da, eta da, jakina denez, euskaldunen artean izen bakarra, eta egun ofiziala.

Izenaren lehendabiziko aipua, zeinetan *Urdunia* agertzen den, Alfonsso III.aren *Kronikan* agertzen da, 1075ean, Lope Santxezek Donemiliagako monasterioari eginiko oparian bezala. 1477an, Aiarako jaunaren kontrako epaian, *Urdunna* irakur dezakegu. Juan Ramon Iturritza y Zabalak 1793. urtean eginiko *Historia General de Vizcaya* liburuaren 41. izkribuan honako hau agertzen da: “*franca carta in Urduña*”.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon, bimilagarreneko martxoaren zazpian.

On ikusia



H. Knörr Borràs, batzordeburua



Mikel Gorrotxategi